




EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

txostena 2009



www.ongdeuskadi.org

Laguntzailea:



ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Araba

Simone de Beauvoir Elkartetxea
San Ignacio de Loyola 8 - 3. 1 Bulegoa
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 280 745 • Faxa: 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Urkixo Zumarkalea 30, Urkixo Galeriak, 8. bulegoa
48010 Bilbao
Tel.: 944 150 300 • Faxa: 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Pasajes San Pedro Etorbidea 13 atzealde
20017 Donostia
Tel.: 943 463 526 • Faxa: 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

coordinadora@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

1.	Aurkezpena: Itxiera eta irekiera garaia	2
2.	Nortzuk gara?	4
	Misioa	5
	Barne antolaketa	5
3.	Gure ekimenak	6
	Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea	6
	Generoa	8
	Eragin Politikoa	10
	Giza Mobilizazioa eta Kanpainak	12
	Komunikazioa	14
	Idazkaritza teknikoak	16
	Euskadi	16
	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	18
4.	Koordinakundeko kideak	22
	Gobernu Batzordea	22
	Lan-taldeak	22
	Erakundeetan partaidetza	23
	Talde Teknikoa	24
	Kideak diren GGKEak	24
	Lankideak	24
5.	Ignacio Ellacuría saria	25
6.	Kontu argiak	26

1. Itxiera eta irekiera garaia

2009an izandako hainbat gertakariren ondorioz, dinamika berri ugari sortu dira nazioarteko lankidetzaren euskal esparruan. Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) martxoan ospatu ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta gobernu aldaketarekin batera aro berri bati ekin zaio euskal lankidetzaren publikoan, zeren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia arautzen duen legeak nabarmen aldatu baitu EAEko Garapenerako Laguntza Ofizialaren kudeaketa. Urte honetan zehar, Jaurlaritza Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia martxan jartzeko prestaketa lanetan aritu da.

Bestalde, foru aldundiek planteamendu berriak eginez hasi dute ekitaldia; erakunde arteko koordinaketa prozesua hasi dute eta datozen hiru urteetarako Plan Zuzentzaile bateratua izan da prozesu horren emaitza. Hiru aldundiek ahalegin handia egin dute marko estrategiko partekatu bat adosteko eta prozesu horretan Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea sartzeko. Horri esker, aurrerapen positiboa lortu da nazioarteko lankidetzaren eginiko lanean.

Bestalde, Koordinakundeak norabide zehatz batean zuzendu nahi izan ditu eragile publikoekiko elkarrizketak eta proposatzen diren lan-modu berriak, helburutzat harturik garapenerako lankidetzaren eraginkor, koherente, osagarri eta harmonizatua lortzea.

Urtean zehar gure erakundearen baitan hainbat prozesu itxi dira eta beste batzuk ireki dira. Aipatzekoa da amaitu dela Koordinakundeak Garapenerako hamar GKE-rekin (GGKE) garatu duen laguntza prozesua erakunde horietan genero ikuspegia sartzeko. Esperientzia hori argitara eman ondoren, ziklo bat itxi da eta erronka berri bat zabaldu: gure erakundearen funtzionamendu maila guztiak transbertsalki bilduko dituen Genero Politika diseinatzea.

Beste lan bat ere amaitu da epe honetan, 2005-2007 urteetan Gipuzkoako lankidetzaren publikoaren egoera ikertu duen prozesua hain zuzen. Dagoeneko argitaratu eta jendaurrean aurkeztu da komunikabideen birtualitate eta atea zabalik utzi da datozen urteetan proiektu hori Autonomi Erkidego osoan gauzatzeko.

Halaber, hausnarketa prozesu garrantzitsu bat egin da erakundearen barruan, Koordinakundearen erakunde kideen parte-hartzea motibatzeak eta beren arteko harremanak sustatzeak duen garrantzia aztertzeak.

Informazio eta komunikazio teknologia berriek aliantza eta sinergia dinamika berriak ekarri dituzte. Horretarako, Koordinakundeak bere web orria sustatu du eta *Facebook* eta *Flickr* bezalako sare sozialekin bat egin du. Gainera, hainbat lan-topaketa antolatu dira komunikabideekin eta zenbait

komunikazio ekintza garatu dira, esaterako, prentsurrekoak, komunikatuen eta posizionamenduen hedapena... eta, azkenik, *Hegoaldeko Ikuspegiak* Komunikazio Solidarioa Lehiaketa.

Baina, 2008an lehertutako ekonomi eta finantza krisi larriak markatutako urte honetan, zalantzarik gabe, funtsezkoak izan dira hausnarketa espazioak, argi geratu baita egungo garapen eredia ez dela gai desberdintasunak desagerrarazteko –aitzitik, are larriago bilakatzeko baititu-. Eredu honek, gainera, ez du gizakion zoriona elikatzen. Horregatik, GGKEetan hiru eztabaida proposatu dira. Batetik, kritikoki aztertu behar dira garapenerako politikak, tresnak, arkitektura eta laguntzak, eta zorrotz aztertu behar dira baita ere onartezinak diren murrizketa sozialen politikak. Bestetik, GGKEen erronka aztertu behar da: garapenerako erakunde koherente eta gardenak eraikitzea, eragin politikorako gaitasuna duten erakunde ekitatibo eta eraginkorrak alegia. Eta, azkenik, GGKEen nazioarteko lankidetzaren eraginkortasuna eta kalitatea nola hobetu ikertu behar da. Hausnarketa espazio hauekin batera, beste hainbat jarduera eta ekintza egin dira hiru lurraldeetan (salaketak, giza mobilizazioak, sentsibilizazioa...), besteak beste, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Astearen.

2009arekin batera amaitu da 2006-2009 urteetarako garatutako Plan Estrategikoa. Urteko azken hilabeteetan ebaluatu dira lortutako emaitzak, prozesu parte-hartzaile luze baten

bitartez. GGKEek, lurralde batzordeek, lan taldeek, Gobernu Batzordeak, kontratatutako langileek eta plataformarekin harremana duten kanpoko eragileek azterketa eta ebaluaketa lan konplexua egin dute prozesu horretan. Gainera, Koordinakundeko kide diren erakundeek Gobernu Batzordeak prestatutako galdetegi bati erantzun diote, garapenerako lankidetzaren sustatzeko, bultzatzeko eta koordinatzeko sare bezala etorkizuneko ekintzek hartu behar duten norabidea zehazteko. Espero dugu erantzun horietatik aterako direla erakundeak datozen urteetan egingo duen lana egituratzeko jarraibideak; 2010-2013 Plan Estrategiko berria jasoko da lan hori, eta baita ere sare bezala hartuko diren lehentasunak eta horiek lortzeko modu eraginkorrenak.

Urtea amaitzeko, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak Ignacio Ellacuría saria jaso du 20 urtetan egindako lanaren aitortza bezala.

Ana María Arriola Palomares
Euskadiko GGKEen
Koordinakundeko Lehendakaria

2.



Pobreziazen kontrako Nazioarteko Eguna

¿Para cuándo la vacuna contra la pobreza?

Noizko pobreziazen aurkako txertoa?

Día Internacional contra la pobreza

Viernes, 16 de octubre • Urriak 16, ostirala El Arenal (Bilbao)

17:30 Participación popular: mural colectivo, taller de pancartas y hapas, juegos infantiles y cooperativos...
Mesas informativas: comercio justo y solidario, banca ética, pobreza cero...
Animación callejera con **De Traka**

19:30 **MANIFESTAZIOA**

20:30 Concierto con **GORACHE** (fusión pop-folk-rock)

EZAGUTUZ CONOCIENDO

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko, eta horrek berekin dakar elkarren artean, hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea.

Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2009aren amaieran, 79 GGKE ditu eta 110 egoitza baino gehiago Euskadiko lurralde historikoetan.

Urte hauetako esperientziaren ondorioz, Koordinakundearen lehentasunezko helburu batzuk adostu ditugu guztion artean:

- Kide diren GGKEen arteko koordinazioa hobestea, garapenerako nazioarteko lankidetzaren areagotzeko, erakundearen arteko ekintza bateratuak gauzatzeko.
- Sustatzen ari garen lankidetzaren ereduaren hausnartarako espazio erkidea sortzea, Iparralde-Hegoaldean dauden harreman desberdinak aldatzeko.
- Euskal gizartea Hegoaldeko herrialdeen errealitatearekiko sentsibilizatu, kontzientziatu eta prestatu.
- Tolerantzia eta elkartasuna bultzatu herri eta kulturen artean.
- Jendaurrean azaldu GGKEek eginiko lana.

Misioa

Koordinakundeak garapen lanetan diharduten zenbait GKE biltzen ditu. GKE hauek Jokabide Kode bat dute eta giza garapen iraunkorraren eta genero berdintasunaren alde lan egiten dute.

Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Erakunde publiko eta pribatuek hala nola Koordinakundeari elkartutako organizazioek kalitatezko garapena bultzatzen lan egitea.
- Koordinakundeko kide diren erakundearen prozesuak bultzatzea beren ahalmen politiko eta teknikoak indartuz.
- Eraldaketa soziala sustatzea elkartasunaren kultura bultzatuz hiritarren artean, berdintasunak eta pobrezia areagotzen dituzten egiturak aldatuz eta gure garapen ereduari buruzko eztabaida sustatuz.

Hori guztia aurrera eraman nahian, Koordinakundeak topaguneak, eztabaida eta hausnarketa guztiak eskaintzen ditu erakunde kideek irizpide komun batzuk finka ditzaten, gainera, eragin politiko eta soziala garatzen du, aliantzak bideratzen ditu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko handiagoa aldarrikatzen du. Era berean, erakundearen ahalmena indartzen eta erakundearen arteko aliantzak errazten ditu, erakundearen baliabideak jendeari helaraziz eta alderantziz.



Barne antolaketa

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen organo nagusia Batzorde Orokorra da. Urtean behin batzen da urteko oinarritzko irizpide eta jardueraren ildoak zehazteko. Bestalde, Batzorde Orokorrean hautatzen dira instantzietako ordezkari izango diren karguak.

Batzorde Orokorra urtean behin (gutxienez) batzen denez, Gobernu Batzordea da Koordinakundearen organo exekutiboa. Hilean behin egiten diren Lurralde Batzordeetan hartutako erabakiek aholkatzen dute Gobernu Batzordea eta batzordeetako erabakiak betearaztea du helburu.

Gainera, lana eragingarriagoa izan dadin, lurralde bakoitzean lan-taldeekin lan egiten da. Hauek talde txikiagoak dira eta GGKE guztientzat irabazasmorik gabe lan egiten duten hainbat GGKEetako kideez osaturik dago.

Hauek dira hiru lurralde historikoetan ditugun lan-talde operatiboak:

- Eragin Politikoa.
- Generoa.
- Giza Mobilizazioa eta Kanpaina.
- Komunikazioa.

Era berean, Jokabide Kodeari jarraipena emateko taldea ere badago.

Jendearantzako eta GGKEentzako zerbitzu bat ere badu eskabideei erantzuna emanez hiru lurraldeetako idazkaritza teknikoaren bitartez.

3.



Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

2009. urtean zehar, Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordeak lanean jarraitu du Jokabide Kodearen hedapena eta eza-gutza sustatzeko, GGKEen artean honen jarraipena bultzatzeko, GGKEek Kodea betetzen dutela egiaztatzeko, interpretatzeko eta erakundeei bere aplikazioaren inguruan aholkatzeko. Guztira, sei aldiz bildu da urtean zehar.

Azken 12 hilabeteetan, Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordeak bi lan izan ditu nagusi. Alde batetik, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen sartzeari eskatu duten GGKEen dokumentazioa aztertu du, eta horretarako, Gobernu Batzordeari eta Batzar Orokorrari igortzen zaien balorazio txosten bat egin du. 2009an, Bizilur GGKEa sartu da Koordinakundearen eta Economistas sin Fronteras

Fundazioa eta Educación sin Fronteras sartzeari gomendatu da.

Bestalde, Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordeak aurrera jarraitu du Koordinakundeko Batzar Orokorrak 2007an onartutako prozesuarekin.

Horrela bada, GGKEek Jokabide Kodearen inplementazioari buruz eginiko galdetegiak aztertu ditu, gure lana etengabe hobetzeko asmoz. Berrito ere gutun bat bidali zaie Kodea betetzeari buruzko galdetegi erantzun ez duten Koordinakundeko GGKEei, eskatutako informazio eta dokumentazioa bidal dezaten.

Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordeak presentzia izan du Estatu mailan, izan ere,

Madriren egindako Jarraipen batzordeen urteko to-paketan parte hartu baitu.

Hitzordu hartan autonomi erkidegoetako koordina-kunde bakoitzean bizitako prozesuak trukatu ziren.

2009an bilera bat egin da Anesvad elkartearekin Koor-dinakundeari bere marketin kanpaina berria aurkeztu zieziaion, komunikabideen bitartez hedatu aurretik.



Valoración de la campaña

Comisión de seguimiento de código de conducta de la Coordinadora de ONGD de Euskadi



La nueva campaña publicitaria de la Fundación ANESVAD muestra una clara intención de dar un giro al tipo de comunicación que esta organización venía llevando a cabo en anteriores campañas. Se pone de manifiesto la voluntad de realizar anuncios menos agresivos, eliminando imágenes y mensajes sensacionalistas que tienen como objetivo captar la atención de la ciudadanía. El uso de este tipo de estrategias causa en los espectadores/as sentimientos de lástima y pena ante la realidad descrita, provocando actitudes impulsivas y puntuales que no mueven a la acción continuada y reflexionada, y que, por tanto, no apoyan al desarrollo de dichos países, según el Código de Imágenes y Mensajes a propósito del Sur aprobado por la Coordinadora de ONGD de Euskadi.

Esta nueva campaña se basa en mostrar historias de personas de los países empobrecidos donde ANESVAD trabaja, dejando que sean ellas mismas quienes adquieran el protagonismo de las narraciones. Los anuncios, en primer lugar, muestran una realidad asociada a una problemática, y a continuación, se explica lo que la organización lleva a cabo para mejorar esa realidad y lo que ese trabajo aporta a la población. Este aspecto ayuda a uno de los fines que persiguen las ONGD: no sólo mostrar las consecuencias de las situaciones de injusticia, sino hacer entender a la ciudadanía cuáles son las causas que generan dichas situaciones. El objetivo es, por tanto, despertar un espíritu crítico y movilizar para romper esas estructuras que generan desigualdades entre los diferentes países del planeta. Destaca también que la recaudación de fondos no es el objetivo principal de la campaña, ya que lo que se quiere poner de manifiesto es el reconocimiento a los socios/as por su apoyo a la organización.

Como aspectos a mejorar, destacamos que los hombres adquieren un papel predominante a lo largo de la narración en el caso del spot sobre el proyecto de Costa de Marfil. Aunque la realidad es que el personal del centro médico es eminentemente masculino, sería deseable promover la presencia de mujeres en los anuncios. Por su parte, el eslogan hace mención a los "90.000 socios" de la organización. A pesar de que el lenguaje publicitario le resta importancia en aras de la efectividad del mensaje, es una realidad que la utilización del masculino genérico invisibiliza a las mujeres.



Código de Conducta de las
Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo
Coordinadora de ONGD-Euskadi



Generoa

Koordinakundearen Genero Alorrean, genero berdintasuna lortzera bideratutako hainbat alderdi jorratu dira. 2009an amaitu da genero ikuspegia instituzionalizatzeko asmoz hamar GGKEekin burututako prozesua. Lana 2007an hasi zen, Koordinakundeak konpromisoa hartu baitzuen erakundeen baitan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko.

Prozesu honetako amaierako jardueren artean aipatzekoa da hamar erakunderekin batera egin zen saioa. Bertan aztertu zen zein egoeratan dauden genero ikuspegia instituzionalizatzeko urtetako lana egin ondoren. Gainera, BBKren diru-laguntzari esker *Euskadiko GGKEetan genero ikuspegia sartzeko prozesuaren sistema-ebaluazioa* argitalpena kaleratu ahal izan da, bertan biltzen delarik hamar erakunde horiek bizi izandako esperientzia. Era berean, ikerketa horren aurkezpen publikoa egin zen eta hainbat komuni-

kabideri azaldu baitzitzaizkien lortutako ondorio nagusiak. Dokumentua ezagutzera eman zen Donostiako eta Gasteizko lankidetzeta udal batzordetan, ERDU (Arabako Elkarrekin eta Boluntarioen Agentzia) eta antzeko foroetan. Halaber, etorkizunean antzeko prozesuetan parte hartzeko interesa azaldu zuten Koordinakundeako hainbat erakundetan ere aurkeztu zen.

Argitalpen horrek gainera etorkizuneko bozkarioa dauka, Koordinakundearen beraren Genero Politika garatzeko oinarriak ezarri baititu. Horixe izan da urtean zehar lan-taldeak izan duen jarduera nagusietako bat eta berau garatzeko, hots, genero auto-diagnostikoa egiteko bi etapa gauzatu dira. Lehenengoan, Koordinakundearen baitako hainbat pertsonak parte hartu dute hiru lurraldeetatik etorritakoak (Gobernu Batzordeak, Lan-talde Teknikoak eta Genero, Komunikazio, Giza Mobilizazioa eta Kanpainak eta Eragin Politikoko lan-taldeek). Genero

Taldearen laguntza metodologikoari esker diagnostikatu ahal izan dute zein neurritaraino barneratu dituen erakundeak genero berdintasunarekin lotutako arau eta printzipioak bere politiketan (estatu-tuak, araudiak, protokoloak...), bere egituran (giza baliabideak, lan politika, prestakuntza planak...), antolakuntzako kulturean (erakundearen *nortasuna* definitzen duen idatzi gabeko arauen multzoa) eta bere produktuetan (kanpora hedatzeko edo barruan mantentzeko sortutakoak). Bigarren fasean, berriz, lan-taldeak taldeen lanari ekin dio berriro eta Natalia Navarro kanpo aholkulariaren laguntza metodologikoarekin osatu du.

Genero berdintasunarekin zerikusia duten eragin politikoko gaitan, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzako Lankidetzazuzendariak euskal erakundeetan *Genero berdintasuna lortzeko prozesuaren dekretuari* egin dizkion ekarpenak, eta baita emakumezko kanpo aholkulariak eskaintzen dituen lan poltsaren kudeaketa ere. Era berean, ekarpenak egin zaizkie hiru euskal foru aldundien Plan Zuzentzaile bateratuari eta Gasteizko Udaleko Plan Zuzentzaileari. Gasteizko Udaleko Lankidetzazuzendariaren kontseiluan genero gaiak lantzen dituen lan-taldean parte hartu da eta bilerak egin dira Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin, GGKEentzat generoaren arloko prestakuntza estrategiak diseinatzeko.

Beste hainbat jardueraren artean, azpimarratzekoak dira estatuko zein autonomietako genero taldeen sarean eta *GGKEen erronkak eta desafioak mundu globalizatuan* lan-saioen prestakuntzan parte hartu izana. Bestalde, aliantzak, lan ildoak eta elkar-ezagutza bultzatzen jarraitzeko asmoz, lankidetzaren eremuan diharduten eta Bizkaia bisitatu duten Hegoaldeko emakumeekin bilerak antolatu dira. Gainera, martxoak 8 eta azaroak 25eko Bizkaiko koordinakunde feministetan parte hartu da. Azkenik, Genero Saileko Arduradunak hainbat jardunalditan esku hartu du, hala nola *Retos y propuestas en defensa de los derechos humanos de las mujeres* edo *V Jornadas de empoderamiento de las mujeres*. Generoari eta garapenari buruzko ikastaro bat eskaini da Donostian eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko genero estrategia martxan jartzen lagundu da. Euskadiko *Nuevas masculinidades y desarrollo* taldea koordinatu da ere. Aldi berean, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundeko Genero Lan-taldeak hala eskatuta, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) egin duen genero eta garapen sektoreko ikerketa-diagnostikoan parte hartu da.





Eragin Politikoa

Eragin Politikoaren Alorrean, 2009an zehar harreman egonkorrak izan dira Euskadiko lankidetzak politikak diseinatzeko ardura duten eragileekin eta baita Autonomi Erkidegoan ordezkariak duten alderdi politiko nagusiekin eta beste erakunde batzuekin ere, hala nola Euskal Fondoa Elkartarekin. Gainera, aurrerapen nabarmenak lortu dira Pobreziaren aurkako Ituna sinatzeko bidean, testu bateratu bat proposatuz.

Aldizkako bilerak egin dira Eusko Jaurlaritzarekin eta Koordinakundearen ordezkariak izan da Eusko Jaurlaritzako Aholku-Batzordean. Bi espazio horietan posizionamenduak aurkeztu dira eta ekarpenak egin zaizkio Eusko Jaurlaritzaren araudiari, aurretik barnean adostu ondoren jakina. Halaber, Lankidetzako Euskal Legearen jarraipena egin da, betetze gradua eta epe labur-ertainean izango duen etorkizuna aztertzeko. Gainera, hauteskunde autonomikoak direla eta, hauteskunde programetan sartzeko aldarrikapen zerrenda bat egin da, Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politikoekin negoziatuta.

Era berean, nabarmentzekoa da parte hartu dela hiru foru aldundietako Plan Zuzentzailea garatzeko prozesuan, berau baita lankidetzak gaitan foru ekimenak koordinatuko dituen dokumentua. Lurraldeetako lan-taldeen besteak beste baremazio proposamenak aurkeztu dituzte. Gainera, proposamen horiek onartu ondoren prozesuaren eta emaitzaren barne ebaluaketa egin da.

Komunikazio Alorrarekin koordinaturik, iritzi artikulatuak argitaratu dira hainbat komunikabidetan, eta horien bitartez eskatu zaie euskal erakunde publikoei konpromiso handiagoa har dezatela elkartasunaren alde, konpromiso hori krisi ekonomiko globalaren testuinguruan osatutako 2010eko lankidetzak aurrekontuetan islatuz. Helburu berberarekin, hainbat bilera antolatu dira Eusko Legebiltzarreko taldeekin, 2010eko aurrekontuan eragina eduki ahal izateko.

Bestalde, sei kapitulu onartu dira eta horiek dira oraingoz Eragin Politikoko Dokumentu Markoa osatzen dutenak; dokumentu



Giza Mobilizazioa eta Kanpainak

GGKEok herritarren partaidetzarako bide garen aldetik, badakigu gure lanak askatasuna, justizia eta elkartasuna sustatu behar dituela, adierazteko bide zehatz eta eraginkorrek eskainiz, eta aldi berean gizartearengan eragin efektiboa edukiz. Guretzat funtsezkoa den eraldaketa sozialaren testuinguruan, eztabaidarako eta parte-hartzerako espazioak bideratzea eta desberdintasuna eta pobrezia sortzen dituzten egitura bidegabeak aldatzea dugu helburu.

Finkatutako helburu horietan oinarrituta, 2009an zehar Zero Pobrezia kanpainarekin jarraitu da hainbat jarduera eta ekintza gauzatuz: eztabaidak, gogoeta, nazioarteko egunekin bat datozen jarduerak, esaterako, G8aren topaketa, edo Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna. Prestakuntza, hausnarketa, kaleko ekintzak, sentsibilizazioa, salaketa, hitzaldiak, bideo-foruma, materialen hedapena, topaketak, tailerrak... Horrelako jardueren bitartez, herritarrei informazioa eman nahi izan zaie Milurteko Garapen Helburuak lortzeko falta diren erronkei eta egingandako aurrerapenei buruz. Bilbon eta Gasteizen gauzatutako ekintzez gain, babestu eta

indartu egin dira beste hainbat hiri/herritan dauden plataforma eta taldeak: Donostia, Eibar, Irun, Arrasate, Zarautz, Errenteria, Agurain, Laudio eta Mundakakoak hain zuzen. Ekitaldi honetan ahalegin handia egin da mobilizazio eta salaketa ekintzei dagokienean, hezkuntza zentroetako sentsibilizazioaren arloan eta eragin politikoaren esparruan Pobreziaren aurkako Hitzarmenen bitartez. Beste hainbat antolakunde, sindikatu eta kolektiborekin batera, apustu bateratua egin da salaketaren eta mobilizazio sozialaren alde, gure gizartean eta munduan pobrezia eta bazterkeria soziala sortzen dituen neoliberalismoaz besteko eredu sozial eta ekonomiko bat bilatzeko.

Beste erakunde, antolakunde eta mugimendu batzuekin sarean egiten den lana sendotu da. Aurten harreman hori indartu da, ekintza komun eta partekatutak sortuz eta beste erakunde batzuekin dagoeneko existitzen zirenak babestuz: Zero Pobrezia plataformak, Palestinarekin Elkartasun Sarea Mewando, SOS Arrazakeria, REAS Sarea (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioa), Europako EAPN Sarea (Pobrezia eta giza



bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin), Harresiak Apurtuz, Hikaateneo, Salhaketa, Amnistía Internacional, Bachué Kolektiboa, talde eta mugimendu internazionalistak, sindikatuak, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)...

Era berean, Giza Mobilizazioa eta Kanpainen Alorrean indarrak biltzeko eta elkarteak eta beren aldarrikapenak bultzatzeko apustua egin da. Horretarako, GGKE kideen lana babesten da, aktiboki parte hartzen da hainbat kanpainatan, adibidez, *Hemen ez dago inor sobran*, atzerri-tartasun legea erreformatzearen aurka, Saharako herriaren eta zehazki Aminetou Haidar aktibistaren aldeko ekintzak, Bidezko Merkataritzaren Eguna, Elkarketa Ekonomikoak egiteko Akordioen aurkako kanpaina, Mundumira, Munduko Arrozak, Kolonbiako Exekuzio Estrajudizialei eta Inpunitateari buruz Nazioarteko Behaketa Misioko argitaratutako azken txostenaren aurkezpena, Arrazakeriaren aurkako martxa...

Denbora horretan Mewando Sarean eta Palestinarekiko gauzatu dituzten elkartasun ekintzetan parte hartu da: prestakuntza, sentsibilizazioa eta mobilizazioa, eta presio politikoa egiteko ekintzak Eragin Politikoko Lan-taldearekin. Gazako erasoaren ondoren, Koordinakundeak aktiboki parte hartu du bertan bizi izandako egoera salatzeke egin diren mobilizazio eta ekintzetan.

Beste behin ere, Munduko Foro Sozialarekin bat egin dugu; Brasilen zuzenean parte hartu zen eta Ekintza Globaleko Astean planteatu diren jardueretan (topaketa hartako Mugimendu Sozialen Batzarretik eratorritakoak) ere parte hartu da hiru lurraldeetan.

Irailean, Donostian antolatu zen *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldien

zazpigarren edizioa. Parte-hartze zabal eta aktiboa izan zen, GGKEen zein hiritarren aldetik. Era berean, Gipuzkoako antolakundeek garatutako *Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza baliabideen katalogoa* egiten lagundu da.

Epealdi horretan hainbat ekintza antolatzen jarraitu da: Bilbon eta Gasteizen garatu diren prestakuntza prozesuak eta *Sentsibilizatzeko sormena* tailerrak, Zero Pobrezia ikastaroak...

Halaber, Bizkaiko Idazkaritzarekin eta Genero Taldearekin batera, jarraipena eman zaio 2008an hasitako *GGKEen erronkak eta desafioak mundu globalizatuan* eztabaida eta hausnarketa prozesuari.





Komunikazioa

Komunikazioaren eremua ezinbestekoa da bidegabekeriak salatzeko, pobrezia sortzen duten egiturak ezagutarazteko, hiritarrengan elkartasunaren kultura sustatzeko eta gure ingurunearen eraldaketa soziala lortzeko. Horretarako, Komunikazio Arloak hainbat komunikazio estrategia diseinatu ditu urtean zehar. Lan-taldeek eta gure parte-hartzea duten plataformek antolatutako jarduerak komunikabideen bitartez hedatu dira. Nabarmentzekoak dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Pobreziaren aurkako Nazioarteko Astea ospatu zenean argitaratutako albiste, elkarrizketa edota iritzi artikulugariak. Halaber, izan duten oihartzun mediatikoagatik aipatu beharrekoak dira Donostian egindako *Mundu zabala, errealitate anitz* jardunaldia, Bilboko *Geldi eta ekin* jarduera, Ekintza Globaleko Astea eta bi argitalpen.

Aurten ere Arabako Komunikazio Taldeak *Hegoaldeko Ikuspegiak* Komunikazio Solidarioa Lehiaketa antolatu du, zeinak bi helburu nagusi baitauzka: batetik, gazteak

elkartasunaren eta lankidetzaren esparrura erakartzea eta, bestetik, hedabideetako profesionalek herrialde pobretuei buruzko mezuei ematen dieten tratamendua hobetzea. Bigarren edizio honetako irabazlea *Hornos ahorradores de leña* irrati erreportajea izan da. Ekimenaren hirugarren edizioa martxan jarri da hainbat erakunderen laguntzarekin (EHUko Giza Zientzia eta Komunikazio Fakultatea eta Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa) eta hainbat hedabide kolaboratzaileen babesarekin (Cadena Ser, Radio Euskadi eta El Correo). Bestalde, Arabako Irrati Taldeak hilero emititu du *Sintoniza tu Sur-Piztu zure Hegoa* saioa Ola 19 irrati-etxean. Bertan, hurbilketa kritikoa eta hausnarketa egin dituzte hainbat gairen inguruan. Gainera, irrati tailer bat antolatu da mikrofonoen aurreko trebetasuna hobetzeko eta mezuen hedapena zabaltzeko.

Beste behin ere, hainbat topaketa antolatu dira GGKEen eta komunikabideen artean. Helburu nagusiak ziren kazetarietara harremanak estutzea eta gai zehatzei buruzko informazioak, tratamenduak eta ikuspegi

egokiak bideratzea. Araban eta Bizkaian Pobreziaren aurkako Nazioarteko Astea izan zen topaketen ardatza eta Gipuzkoan, berriz, *Mundu zabala, erreallitate anitz* jardueraren baitan bildu ziren. Horrez gain, erakundeei komunikabideetara iristeko bidea errazteko eguneratu egin dira elkartasun eta lankidetzeta gaiekin lotutako albisteak lantzeko interesa duten Euskadiko kazetarien datu baseak. GGKEetako bozeramaileen jendaurreko komunikazio gaitasunak hobetzeko ere hainbat prestakuntza ikastaro eman dira Bizkaian eta Gipuzkoan.

Gainera, extraneta kudeatu da eta aste-ero eguneratzen dira Koordinakundeko webeko atalen edukiak. Doako buletin digital bat bidali da astean behin informazio interesgarri askorekin eta Koordinakundeko espazio berriak ireki ditu *Facebook* eta *Flicker* bezalako sare sozialetan edota *Vida solidaria* eta *Solidarios/as* bezalako blog tematikoetan.

Urtean zehar hainbat artikulua, prentsa-ohar, informazio eta abar argitaratu dira. Gainera, elkarrizketak eta erreportajeak (prentsa idatzian, telebistan, irratan) ere egin dira hainbat gairi buruz. Aipatzekoa da adibidez Eragin Politikoko Sailak eginiko iritzi artikulua bat, hainbat komunikabideetan argitaratu zena eta baita lankidetzari eta elkartasunari buruzko gehigarriak ere. Halaber, Koordinakundeko posizionamendu publikoak hartu ditu bidegabekeriak salatzen, esaterako, Perun gertatu ziren

gatazka bortitzen kasuan edo Eusko Jaurlaritzak 2010erako osatu zituen aurrekontuen balorazioa egin zuenean. Era berean, asteroko konexioak egin dira Onda vasca irratiarekin eta *Ahotsa* aldi-zikariaren hiru ale editatu dira, non gai interesgarriak landu baititugu. Guztira 1.500 hartzaille baino gehiagoren artean banatu dira, ikastetxeak, komunikabideak, zentro zibikoak, liburutegiak eta erakundeak barne.

Bestalde, Koordinakundeko komunikazioziko beste gai batzuek aurrera egin dute eta hobekuntzak izan dituzte; Komunikazio Plana eta argitalpen politika garatu dira eta gainerako lan-taldeei laguntza eman zaie material korporatiboa eta argitalpenak editatzeko. Azkenik, komunikazioaren esparruko beste ekimenetan ere parte hartu da, hala nola EGK-k antolatutako *Gazteak eta komunikabideak topaketa*, EAPN-en eskutik iritsi zen *Gizarte erakundeen eta komunikabideen arteko harremana: hobekuntzarako proposamenak* jarduera, edo Zero Pobrezia kanpainari buruzko prestakuntza ikastaroa, Espainiako Garpenerako GGKE Koordinakundeko Madrilentolatu.





Idazkaritza teknikoak

Euskadi

2009an Zuzendaritzak arreta berezia eskaini die Koordinakundeko batzar orokorretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakien jarraipen eta garapenari, Plan Estrategikoaren barruan sartzen baitira.

Besteak beste, Koordinakundea finantzatzen duten erakundeekin 2009an sinatutako hitzarmenen jarraipena egin da. Kudeaketa eta administrazio arloko hainbat lan burutu dira, esaterako, kontabilitatearen

eta ordainketen jarraipena, urteko aurrekontua eta balantzea prestatzea, GGKEen kuotak kobratzea...

2009an azken lau urteotako lana, hots, 2005-2009 Plan Estrategikoari jarraituz eginikoa ebaluatu eta baloratu da. GGKEekin, lurraldeetako batzarrekin, lantaldeekin eta Gobernu Batzordearekin garatutako ebaluaketa-epe honetan Zuzendaritzaren eta Plan Estrategikoko Lantaldearen laguntza eduki da. Halaber, plangintza berri-rako proposamenak prestatu dira.



Ekainean Arrasaten ospatu zen Batzar Orokor Arrunta. Horrela bada, deszentralizatu egin dira Koordinakundeko kide diren GGKEak biltzen dituzten eta erakundearen norabidea zuzentzeko urtero egiten diren bilerak. Bertan aurkeztu zen Plan Estrategikoaren ebaluaketa prozesua eta Plan berriaren garapen fasea. Dokumentu Markoaren sei atal onartu ziren eta Koordinakundeko Genero Autodiagnostikoaren ondorioak aurkeztu ziren. Era berean, *GGKEen erronkak eta desafioak mundu globalizatuan* prozesua azaldu zen. Bestalde, Ana María Arriola, ordura arteko Lehendakariordeak jarduneko Lehendakari-tza kargua hartu zuen eta Ruth Fernández izendatu zen Gobernu Batzordeko idazkari. Koordinakundeko ordezkari-tza kargu berriak izendatzeaz gain, Koordinakundearen barruan postu berri bat instituzionalizatzeko proposamena onartu zen, Lankidetzarako Euskal Kontseiluan genero gaiak lantzeko. Azkenik, Bizilur GGKEa Euskadiko GGKEen Koordinakundean sartu zen.

Bestalde, Zuzendaritzak hainbat lan burutu ditu Koordinakundeko langileen kudeaketa arloan: langile bat kontratatu da Arabako Idazkaritza Teknikoko arduradunaren amatasun baja osatzeko eta beste bat Donostiako egoitzako langile baten eszedentzia-aldia betetzeko. Halaber, laguntza eskaini zaio Gobernu Batzordeari bilerak, gai-zerrendak, aktak eta dokumentuak prestatzeko eta lortutako akordioen jarraipena egiteko.

Zuzendaritzak beste lan bat ere gauzatu du, hain zuzen Espainiako GGKEen Koordinakundearekiko lotura izatea. Horretarako, Autonomi Erkidegoetako Koordinakundeen Taldeak bi hilean behingo bilerak egin ditu Madrilen eta, jasotako informazioaren jarraipena egiteaz gain, Gobernu Batzordeari eta GGKEei helarazi die. Gainera, 2009an Euskadiko GGKEen Koordinakundea izan da Estatuko koordinakundeek eta federazio au-



tonomikoei AECID elkarteari aurkeztutako proiektuaren partzuergoko buru. Era berean, Toledon ospatutako Autonomi Erkidegoen Koordinakunde VII. Topaketan parte hartu zen eta baita ere Madrilen ekainean ospatutako Sektoreko II. Topaketan *Transformación y retos del sector en una sociedad en cambio* izenburupean. Gainera, Zuzendaritzak bilerak izan ditu Gobernu Batzordeko kideekin eta Espainiako GGKEen Koordinakundeko teknikariek, Euskadin plangintza estrategikoaren arloan dagoen esperientzia erakusteko, eta horrela bertako Plan Estrategikoaren osaera babesteko.

Beste alde batetik, Koordinakundeko Zuzendaritzak Bilboko Udal Lankidetzako Kontseiluko lantalde batean parte hartu du, Bilbon, ekainean, *Consejos Municipales de Cooperación. Espacios para la participación comprometida e impulsores de la implicación ciudadana* izenburupean ospatu ziren lankidetzari buruzko jardunaldiak prestatzeko. Era berean, azaroan Koordinakundeak hitzaldi bat eman zuen Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskaeren Batzordearen aurrean, egindako lanaren berri emateko.

Prestakuntza atalean prozesu bidezko kudeaketari buruzko lan jardunaldi bat antolatu da, bereziki teknikariei zuzendua eta barne-prestakuntzako programaren barruan sartzen dena.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

2009an idazkaritza teknikoek eginiko lan garrantzitsuena Koordinakundeko kide diren GGKEei emandako indarra eta laguntza izan da. Hainbat jarduera egin dira ondoko arloak hobetzeko: publikoari emandako arreta, ekonomiaren eta lan-poltsaren kudeaketa, material eta argitalpenen hedapena, informazioaren kudeaketa, emaitzak bideratzea eta lurraldeetako lan-taldeak koordinatzea, besteak beste.

2009an zehar, GGKEek parte-hartze aktiboa izan dute. Araban 24 erakundek hartu dute parte Koordinakundeko espazioren batean (lantaldeak, lurraldeko batzarrak...). Bizkaiari 36 izan dira eta Gipuzkoan, berriz, 30 inguru.

Lurraldeka, Araban aipatzekoa da Ordezkaritzako GGKEek hainbat gairi buruz gauzatu duten barne hausnarketa prozesua, etorkizunean lurraldean lehentasunezkoak izango diren lan-ildoak identifikatzeko: parte-hartzea, ordezkaritza, indartzea, kanpoko harremanak, eta abar. Gainera, gero eta harreman egonkorragoak mantentzen dira beste hainbat kolektibo edo erakunderekin (adibidez ERDU) eta Gasteizen kokatuta dauden Hegoaldeko kolektiboen bisita edo kontsulta gehiago jaso dira. Bestalde, Kooperantearen Estatutuari buruzko hitzaldi bat antolatu da (AECIDen eskutik) eta Mendebaldea institutuak antolatutako Kultur Asteko tailerrak bideratu dira. Era berean, Gasteizko Udalak areto bat laga du Koordinakundeko kide diren GGKEek beren materialak biltegiratzeko espazioa izan dezaten.

Bizkaiari aipatzekoa da *GGKEen desafio eta erronkak mundu globalizatuan* eztabaida espazioa koordinatu eta antolatu dela. Horretarako, lanean aritu dira Koordinakundeko kide diren GGKEetako boluntarioak, Joka-

bide Kodearen Jarraipen Batzordeko kide bat eta Giza Mobilizazioa eta Kanpaina eta Genero esparruetako arduradunak. Gainera, *Ebaluazio sistemetan sakonduz: adierazleak eta oinarri lerroak eraikiz* ikastaroa antolatu da, eta hainbat hitzaldi eskaini dira probintziako gazte-zentroetan Hegoaldeko herrialdeei GGKEen bitartez nola lagundu dakiekeen aztertzeko. Bestalde, lankidetzari buruzko material guztiak sistematizatzen dituen Dokumentazio Zentroa kudeatzen jarraitu da.

Gipuzkoan harreman estua mantendu da probintziako gazte-informazioko zerbitzuekin. Espazio horietan *Kooperante izan nahi duzu?* dossier informatiboa banatu da, bertan azalduz zeintzuk diren herrialde pobretuei laguntzeko aukerak. Gainera, hainbat hitzaldi eskaini dira lankidetzari horiek sortzeko aukerei buruz ere. Era berean, probintziako kolektiboekin eta Gizalde bezalako erakundeekin mantentzen diren harremanak indartu dira. Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoak aktiboki parte hartu du Koordinakundeko Donostian urtero ospatzen duen *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldiaren antolakuntzan.

Lurraldeetako batzarretarako deialdia egitea izan da idazkaritza teknikoek beste eginkizunetako bat, lan koordinatua hobetzea helburu izanik. Araban 12 lurralde batzar egin dira eta Gipuzkoan 9, bi kasuetan hilean behin. Bizkaiko kasuan, berriz, bilerak bi hilean behin egin dira eta, ondorioz, 5 topaketa antolatu dira guztira.

Gainera, idazkaritza teknikoek GGKEei eta partikularrei lagundu diete Hegoaldeko herrialdeak bisitatzeko moduei buruzko etengabeko informazioa eskainiz, eta informazio orokorragoa ere bai lankidetzari, deialdiei, diru-laguntzei, lan eskaintzei, boluntariotzari, prestakuntzari, material informatikoaren zein


bibliografikoaren maileguei eta beste hainbati buruz.

Kasu batzuetan, idazkaritza teknikoek bilerak edo topaketak antolatu dituzte Euskadin bisitan egondiren Hegoaldeko erakundeekin, harremanak estutzeko eta indarrak batzeko. 2009an aipatzekoak dira ondokoak:

- Topaketa Gasteizen Instituto de Cultura Popular (INCUPO) erakundeko ardura-dunekin, Munduko Landa Foroaren es- kutik etorri zen bisitan;
- Bizkaian hainbat bilera antolatu dira Hegoaldeko erakunde batzuekin, esate-


rako, Nikaraguako INGES GGKEarekin, Nikaraguako Monica Baldonato parla- mentariarekin edo Peruko Calandria era- kundearekin.

Gainera, idazkaritza teknikoek partikular, el- karte, erakunde, kolektibo eta eskoletatik irits- zaizkien eskaera eta kontsultak erantzun di- tuzte. 2009an Arabako ordezkarietan, 700 bat informazio-eskaera izan ziren, Bizkaian 860 baino gehiago eta Gipuzkoan 950 baino ge- hiago. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen be- zala, posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bidea, eta jarraian datoz telefonoa eta bisita pertsonalak:




Koordinakundea lankidetzaren esparruko erreferente bezala ikusten duten pertsonak informazio hauek eskatu dituzte gehienbat: boluntario edo kooperante izateko infor-

mazioa, lan-poltsa, GGKEei buruzko infor- mazioa, dohaintzen eskaintza buruzkoa... Hori guztia ikus daiteke grafiko honetan:



Bestalde, hainbat GKE, elkarte, erakunde eta komunikabide jarri dira Koordinakundearekin harremanetan, zenbait gairi buruzko informazioa eskatzeko: laguntza eskaerak, jardueren hedapena, GGKEak oro har, lankidetzara, dohaintzen eskaintza, Koordinakundea bera... Hurrengo grafikoan ikus daiteke kolektibo horiek gehienbat laguntza eta ma-

terial eskaerak egin dituztela edo jardueren hedapena bilatu dutela; bigarren postuan daude deialdiei edo tramite administratiboei buruzko informazio eskaerak. Zerrendan hirugarren lankidetzaren esparruari buruzko informazioak daude, Koordinakundeari berari edo GGKEei buruzkoak, eta azkenik bestelako informazioak.



Amaitzeko, nabarmentzekoa da Gipuzkoan eta Araban lan handia egin dela elkar hobeto ezagutzeko eta GGKEen arteko lankidetzazustatzeko eskualde nahiz kuadriletan gauzatzen diren jardueretan. Horrela bada, GGKEen presentzia indartzeko lan espezifikoak egin da bi lurraldeetan –hiriburuetan zentralizatu gabe. Besteak beste, lankidetzaren esparruan diharduten erakundeekiko harremanak sortu dira, Hegoaldeko errealtateei buruzko sentsibilizazio ekintzak egin dira eta jarduerak koordinatu dira. Aipatze-koak dira ondokoak:

- Araban, GGKEek garapeneko hezkuntzarako eta sentsibilizatorako dauzkaten baliabideei buruzko informazioa hedatu da (2008an bildua) eta horretarako, udalerrietako kontaktu instituzionalei baliabideei buruzko txostena helarazi zaie. Gainera, probintziako mapa batean bildu dira Arabako koadriletako kontaktu instituzional nagusiak, sentsibilizazio ekintzak egiteko egokiak diren espazioak, GGKEek lurraldean dauzkaten eragileak... Hain zuzen mapa horretatik eratorri dira probintzian lan egiteko lehen estrategiak. Maiatzean Zero Pobrezia kanpainaren baitan antolatutako Amurrioko Azoka Solidarioan parte hartu da. Laudion, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Astean hainbat tailer egin dira ikastetxeetan eta baita ere Azoka Solidario bat. Azaroan *Ezagutuz-Conociendo* esperientzia koordinatu da Agurain inguruan, non hamar GGKEk antolatutako hainbat erakusketa, hitzaldi eta tailer egon baitira ikusgai. Ekimen horren helburua zen GGKEek egiten duten lana publiko orokorrari eta kolektibo jakin batzuei helaraztea, horrela lankidetzak, herritarren parte-hartzea eta GGKEen borondatezko lana bultzatzeko.
- Gipuzkoan nabarmentzekoa da lurraldeko GGKEekin koordinatuta lan egin dela jarduerak lurralde osoan bultzatzeko. Azpimarratzekoa da Zero Pobrezia kanpaina, zeinak bost plataforma baitauzka martxan (Eibar, Debagoiena, Irun, Donostia eta Zarauzko elkartasun taldea) eta babes talde bat ere bai Errenterian. 70 erakunde inguru lanean ari dira helburu berbera lortzeko eta Gipuzkoa osoan banatu da Zero Pobrezia kanpainari buruzko materiala. Bestalde, Eragin Politikoko Taldeari lagundu zaio Gipuzkoan 2005etik 2007ra gauzatutako lankidetzazustatzeko publikoari buruzko lehen ikerketa egiten. Azkenik, Gipuzkoako GGKEek garapeneko hezkuntzarako eta sentsibilizatorako dauzkaten baliabideen katalogoa osatu da, unitate didaktikoekin eta bestelako baliabideekin (erakusketak, bideoak, tailerrak...). Elkartasunari buruzko hainbat gai landuko dira horiekin.





Gobernu Batzordea

Lehendakaritza: Puri Pérez, Mugarik Gabe. **Lehendakariordetza:** Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna. **Idazkaritza:** Ruth Fernández, UNESCO Etxea. **Diruzaintza:** María del Mar Magallón, ALBOAN. **Arabako Ordezkaria:** Yolanda Barco, Haurralde Fundazioa, Francisco Izquierdo, Misiones Diocesanas. **Bizkaiko Ordezkaria:** Jaime Bernar, Zabalketa. **Gipuzkoako Ordezkaria:** Mertxe Di-gón, Interred Euskal Herria. **Batzordekidea:** Yoanna Amondarain, Adsis Fundazioa, Eduardo Langa-rica, Medicusmundi Araba. **Batzordekidea:** Ana Mokoroa, Elan Euskadi. **Batzordekidea:** Sonia González, Paz y Solidaridad.

Lan-taldeak

Generoa

Amaia Iguarán, Ayuda Más. Ana Bengoetxea, Leonekin. Ángela Valort, Bakea eta Duintasuna. Bárbara Basoa, Economistas Sin Fronteras. Beatriz de Lucas, Mundubat. Covadonga Apaolaza, Funde-so. Isabel Uría, Asociación Amigos y Amigas de la RASD de Bizkaia. Santi Martínez, Paz y Solidari-dad. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Domínguez, Adeco. Susana Mateo, Zabalketa. Mónica Fernández, Euskadiko Elkarbidea. Nacho Grossi, Bizilur. Ainhoa López, Ana Gómez, Bego Dorronso-ro, Clara Murguialday, Dominic Wyatt, Lara González taldean boluntarioak izan ziren.

Eragin Politikoa

Euskadi

Emilio López, Edex. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Sara Maza, Nazioarteko Elkartasuna. Regina Zalbidea, Kulturaren Sozial Berrikuntza Erakundea -KSBE. Jesús Ochoa, Economistas Sin Fronteras. Cristina Gonzalo, Cáritas Diocesana de Bilbao. Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. Puri Pérez, Estíbaliz Gómez de Segura, Mugarik Gabe. Olga García, Educa-ción Sin Fronteras. Isabel Portillo, SODEPAZ. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Amaia Iguarán, Ayuda Más. Jaime Bernar, Zabalketa. Nacho Eguizabal, Alicia Alemán, ALBOAN. Teresa Burgui, Mundubat. Álvaro Martín de Vega, Asamblea de Coopera-ción por la Paz. Almudena Martín, Euskadiko Elkarbidea. Javier Garito, Euskadi-Cuba.

Araba

Luis Royero, Asociación Africanista Manuel Iradier. Itziar Inza, Medicusmundi Araba. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Ainhoa Oveja, Save the Children. Estíbaliz Gómez de Segura, Mugarik Gabe. Ainhoa Cuadrado, Paz y Desarrollo. Natalia Rándeiz, Serso Euskalherria.

Bizkaia

Alicia Alemán, ALBOAN. Emilio López, Edex. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. María Arrieta, Gazteak eta Garapena. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, Kulturaren Sozial Berrikuntza Erakundea -KSBE. Laura Iruretagoyena, Economistas Sin Fronteras. Mónica Hernando, Mundubat. Jaime Bernar, Zabalketa. Cristina Gonzalo, Cáritas Diocesana de Bilbao. Amaia Iguarán, Ayuda Más. Jesús González, Mugarik Gabe. Olga García, Educación Sin Fronteras.

Gipuzkoa

Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. Jesús Ochoa, Economistas Sin Fronteras. Xabier Martínez, Mugarik Gabe. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Jesús García, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI). Fernando Vaquerizo, Mundubat. Isabel Goenaga, Adra. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Andrés Matheu, PROSALUS.

Giza Mobilizazioa eta Kanpainak

Araba

Yoanna Amondarain, Aitziber Marín, Adsis Fundazioa. Kepa Torrijos, Paz y Solidaridad. Idoia Pérez de Unzueta, Mundubat. Lorena Fernández, Asociación Amigos y Amigas de la RASD de Araba. Laura Lorenzo, Foro Rural Mundial. Yolanda Barco, Haurralde Fundazioa. Francisco Izquierdo, Misiones Diocesanas. Eva Silván, Save the Children. Beatriz Asenjo, Serso Euskalherria/Tierra de Hombres-Gizakien Lurra/Save the Children. Lut Vansant, SETEM Hego Haizea. Fátima Uribarren, M^a Cruz Budet, Solive. Olga Serrano, Tierra de Hombres-Gizakien Lurra.

Bizkaia

Marta García, Adra. María Lezáun, ALBOAN. Paciencia Okon, Cáritas Diocesana de Bilbao. Itziar Ereño, Interred Euskal Herria. Sofía Marroquín, Intermon Oxfam. Teresa Reyzaal, Médicos del Mundo. Jorge Lago, Kristina Sáez, Ba-kea eta Duintasuna. Ruth Fernández, UNESCO Etxea. Batirtze Diez, Zabalketa.

Gipuzkoa

Ane García, Behar Bidasoa. Maider Gorriti, Cáritas Gipuzkoa. Ana Mokoroa, Elan Euskadi. Lourdes Guruceta, FISC- Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia. Arantza Garbizu, Lurdes Fernández, Medicusmundi Gipuzkoa. Koté Urbietta, Mugen Gaietik. Laura Laborra, PROCLADE YANAPAY. Josean Etxeberria, PROSALUS. Pilar Oronoz, Zabalketa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Elena González, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI). Gipuzkoan dauden Zero Pobreziaren 5 plataforma ez dira hemen sartzen.

Komunikazioa

Laura Ruiz, Foro Rural Mundial. Inmaculada Tazo, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza IC-LI. Aitziber Marín, Adsis. Fundazioa. Egoitz de la Iglesia, Maite Butrón, Natalia Rández, Serso Euskalherria.

Irratia

Laura Ruiz, Foro Rural Mundial. Yolanda Barco, Haurralde Fundazioa. Esti Gómez de Segura, Mugarik Gabe. Marta Larreina, Serso Euskalherria. Olga Serrano, Tierra de Hombres-Gizakien Lurra.

Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

Aldiro urtean zehar: Ana María Arriola, Carlos Askunze, Lara González, Itziar Hernández, Jorge Lago, Puri Pérez, Dominic Wyatt.

Plan Estrategikoaren Taldea

Kideek ez dituzte GGKEak ordezkatzen, Koordinakundeko estamentuak baizik.

Silvia de Gregorio langileen eta Bizkaiko Ordezkaritzaren izenean, Jesús Ochoa Gipuzkoako Ordezkaritzaren partez, Lara González kanpo aholkulari moduan, Puri Pérez Gobernu Batzordearen izenean eta Natxo Ribechini Koordinakundeko Zuzendaritzatik.

Erakundeetan partaidetza

Eusko Jaurlaritzako Aholku-Batzordea

Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Nacho Eguizabal, ALBOAN. Natalia Rández, Serso Euskalherria. Sonia González, Paz y Solidaridad. Almudena Martín, Euskadiko Elkarbidea. Josu Perales, Mundubat. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. Cristina Gonzalo, Cáritas Diocesana de Bilbao. Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna. 2009 urtean zehar bere kargua utzi du Puri Pérez, Mugarik Gabe.

Bilboko Lankidetzako Udal-Batzordea

María Arrieta, Gazteak eta Garapena. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia. 2009 urtean Mónica Hernández, Mundubat. Jesús González, Mugarik Gabe. Cristina Gonzalo, Cáritas Diocesana de Bilbao, euren karguak utzi dituzte.

Vitoria–Gasteizko Garapen Lankidetzako Batzordea

Aurora Hermosilla, Arabako Idazkaritza Teknikoko Arduraduna. Natalia Rodríguez, Eragin Politikoko Arduraduna.

Donostiako Udalako Lankidetzarako eta Garapenerako Hezkuntzarako Udal-Batzordea

Fernando Vaquerizo, Mundubat.

Talde Teknikoa

Idazkaritza Teknikoaren Zuzendaritza, Natxo Ribechini. **Arabako Idazkaritza Teknikoa**, Aurora Hermosilla, Janire Sáenz de Buruaga (amatasun-bajagatik ordezkapena), Olatz Domínguez. **Bizkaiko Idazkaritza Teknikoa**, Ana Gómez. **Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoa**, Erika Erkizia, Julia Laborra. **Genero Arduraduna**, Silvia de Gregorio. **Eragin Politiko Arduraduna**, Natalia Rodríguez. **Mobilizazio eta Kanpainak Arduraduna**, Idoia Aldama. **Komunikazio Arduraduna**: Jon González.

Kideak diren GGKEak

Acción Verapaz Euskadi	Euskadiko Elkarbidea	Medicusmundi Gipuzkoa
Acnur Euskal Batzordea	FISC- Nazioarteko Solidaritzarako	Misiones Diocesanas
Adeco Amistad, Desarrollo y Cooperación	Fundazioa Mariaren Lagundia	MSH Mundu Solidarioa Helburu
Adra	Foro Rural Mundial	Mugarik Gabe
Adsis Fundazioa	FUNDESO Fundación Desarrollo Sostenido	Mugen Gainetik
ALBOAN	Garapena	Mundubat
Amigos del Tercer Mundo	Gazteak eta Garapena	Mundukide
Arquitectos Sin Fronteras	Gizakien Lurra	Munduko Medikiak
Asamblea de Cooperación por la Paz	Haurralde Fundazioa	Nazioarteko Elkartasuna
Asociación Africanista Manuel Iradier	Hegoa	OSALDE Asociación por el Derecho a la Salud
Asociación Amigos y Amigas de la RASD Araba	Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako	Oskar Romero Solidaritza Paz y Solidaridad
Asociación Amigos y Amigas de la RASD Bizkaia	Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI)	PROCLADE YANAPAY
Asociación Amigos y Amigas de la RASD Gipuzkoa	Ingeniería Sin Fronteras	PROSALUS
Ayuda Más	Kulturaren Sozial Berrikuntza Erakundea -KSBE	PROYDE PROEGA
Bakea eta Duintasuna	Intered Euskal Herria	ROKPA Euskadi
Bategínez	Intermón Oxfam	Save the Children
Behar Bidasoa	Iquitanz	SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
Bizilur	Iscoed Euskadi	SERSO Euskalherria
Bultzapen	Itaka Escolapios Fundazioa	SETEM Hego Haizea
Calcuta Ondoan	Izan Elkartea	SODEPAZ Euskadi
Cáritas Diocesana de Bilbao	Justicia y Paz	SOLIVE Solidaridad Vedruna
Cáritas Gipuzkoa	Kainabera	SOTERMUN
Compartir	Leonekin	TAU Fundazioa
Edex	Manos Unidas	UNESCO Etxea
Elan Euskadi	Medicusmundi Araba	Zabalketa
Emaús Gizarte Fundazioa	Medicusmundi Bizkaia	Zubiak Eginez
Euskadi-Cuba		

Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzazuke: lankideak eta boluntarioak diren emakumezkoak eta gizonezkoak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

5.

2009an Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak Euskadiko GGKEen Koordinakundeari eman dio Ignacio Ellacuría saria, garapenerako lankidetzaren esparruan egindako ibilbideagatik. Hogei urteko lanagatik eta garapenarekin zein aldaketa sozialarekin hartutako konpromisoagatik emandako esker ona da hau.

Patxi López Lehendakariak emandako garaikur honekin saritu egin nahi da pertsonak, erakundeak eta kolektiboak, justizia, herrien arteko berdintasuna eta pobrezia gainditzeko eginiko lan solidarioa. Euskadiko GGKEen Koordinakundea sortu zenetik hogeitau urte igaro direnean iritsi zaio sari hau. 80ko hamarkadan, garapenerako euskal erakunde ugari ohartu ziren elkartu eta koordinatu egin behar zutela gizarteari eta erakundeei ezagutarazteko hainbat herrialdek bizi zuten egoera bidegabea, eta aldarrikatu zuten etorkizunean konpromiso serioa hartu behar zela lankidetzarekiko. Hogeitau urte geroago, nazioarteko lankidetzaren esparruan lan egiten duten 79 erakunde elkartu zaizkio proiektu komun hari.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko eta kide diren GGKEetako ordezkari ugari izan ziren sari-banaketan. Gemma Zabaleta Sailburuak esker ona adierazi zion saritutako erakundeari, garapenerako hezkuntza eta boluntarioritza sustatzeko egin dituen ekintzengatik. "Koordinakundeak euskal GKE guztien (ia 80 dira) lana aitortzen du, guztiek laguntzen baitute lan sozial garrantzitsu honetan. Aipatzekoak dira pobrezia-aren aurka eta hezkuntzako berdintasunaren eta garapen orekatuaren alde egindako kanpainak, edo emakumearenganako indarkeria

desagerrarazteko eginiko lana", ziurtatu zuen Zabaletak. Gainera, han zeuden beste agintari batzuekin batera, gogora ekarri nahi izan zuen garaikurrari izena ematen dion Portugaleteko jesuita, filosofo eta teologoaren lana eta oroimena, Ignacio Ellacuriarena, zeina 1989an erail baitzuten El Salvadorren beste bost jesuitek, lankide batekin eta bere 15 urteko alabarekin batera.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bere lana eta lortu nahi dituen helburuak ekarri zituen gogora, eta erakunde guztiek batera lan egin behar dutela azpimarratu zuen: "Urte hauetan ohartu gara elkarrekin indar handiagoa daukagula, eta baita ere eragina izan dezakegula politika publikoetan, posizionamendu komunak adostu ditzakegula GGKE bezala daukagun aniztasuna mantenduz, hiritarregana hurbil gaitzkeela Iparraldeko zein Hegoaldeko bidegabekeriak salatzeke eta egungo garapen erduei buruzko pentsamendu kritiko bat sortu dezakegula" baieztatu zuen Sonia González, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko bozerra-maileak.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eskerrak eman nahi dizkio Eusko Jaurlaritzari sari honegatik, eta Koordinakundea osatzen duten GGKE guztiekin eta horietan parte hartzen duen jende guztiarekin partekatu nahi du, denek lagundu baitute 20 urte hauetako lanean.



6.

Sarrerak	Egindakoa (€)	%
Kuotak	27.895,77	6
Diru-laguntza publikoak*	434.335,00	91
Bestelako diru-laguntzak	16.560,22	3
Guztira	478.790,99	100

Gastuak	Egindakoa (€)	%
Bulegoko materialak	10.035,78	2
Langileak	309.601,86	65
Dietak eta garraioak	22.100,24	5
Kontratazioak	109.825,49	23
Funtzionamendua	25.997,92	5
Guztira	477.561,29	100

*Diru-laguntza publikoak (€)	
Eusko Jurlaritzia	225.000,00
Arabako Foru Aldundia	35.000,00
Bizkaiko Foru Aldundia	33.925,00
Bizkaiko Foru Aldundia (kontratazioa dela eta jasotako diru-laguntza)	8.000,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	42.000,00
Bilboko Udala	32.000,00
Donostiako Udala	35.200,00
Vitoria-Gasteizko Udala	23.210,00
Guztira	434.335,00

Emaitza	1.229,70 €
----------------	-------------------